

Gizarte-zaurgarritasun istorioak: ezegonkortasunaren egunerokotasuna

Gorka Moreno Márquez
EHUko irakaslea

Artikulu honen bidez gizarte-zaurgarritasunean —‘vulnerabilidad social’— sakondu nahi da, baina kasu honetan azterketa teorikoan zentratzea baino —jada egin dena behin baino gehiagotan—, egoera hau pairatzen dutenen iritzia jakitea hobetsi da, beronen bidez haien bizipenak hobeto ezagutzeko eta maila teorikoan lantzen dena benetan errealitatean nola gauzatzen den irudikatzeko. Horretarako, pertsona horien egunerokotasuna hobeto ezagutzeko hainbat elkarrizketa egin dira, haien beharrak, nahiak eta etorkizuneko itxaropenak ezagutzeko nahiarekin. Halaber, artikulu honen bidez gizarte-zaurgarritasunean ageri den ezegonkortasunean sakondu nahi da, baina datu eta teoriak alde batera utzita eta egoera hau pairatzen dutenen hitza entzunda.

GAKO-HITZAK: Gizarte-zaurgarritasuna · Gizarte-bazterkeria · Herri-tartasunaren krisia · Ikerketa-bekak · Gutxieneko errentak · Alargun-pentsioak.

This article present the results of a study on naming practice in Basque Country: across a research on selection of firts names of newborns, the study shows how the sociological logics influences the parents’ choice. However, the investigation focuses on the autonomy of parents and emphasizes the role of resistance to institutional norms and rules about the selection of name.

KEY WORDS: Social vulnerability · Social exclusion · Crisis of citizenship · Research fellowship · Minimum incomes · Widow’s benefits.

Jasotze-data: 2009-07-17. *Onartze-data:* 2009-10-13.

1. Gizarte-zaugarritasuna. Gero eta garrantzitsuagoa den errealitatea

Azken urte hauetan gizarte-zaugarritasunak gero eta garrantzi handiagoa hartu duen kontzeptua da. Nolabait integraturik baina bizi-kalitate egokia ez duten eta ezegonkortasunean bizi direnen ezaugarriak azpimarratu nahi dira ideia horren bidez. Ikuspegi honen baitan kokatzen dira, hain zuzen ere, Robert Castel soziologo frantziarrak egindako ekarpenak. Egile horrek gizartearen egituraren baitan hiru alde bereizten ditu: integrazioa, zaugarritasuna eta bazterkeria (Castel, 1990, 1992, 1997, 2004). Saillkapen horrek eragin handia izan du ondoren egindako lan askotan (García-Serrano eta Malo, 1996; Arriba, 2002; EEEE, 2003).

Definizio zehatza aipatu ondoren, eta errealitatean azaltzen diren adibideak aipatzearen, zaugarritasunean kokatzen diren pertsonak askotan ezin dute okela-xerrarik erosi eta babarrunekin moldatu behar dira, ez dute berogailurik etxean edota zailtasun ikaragarriak dituzte etxeko alokairua, mailegua edota fakturak ordaindu ahal izateko. Peter Glotz-ek aipatzen duen bezala, «jende hau oraindik supermerkatuetan ikus dezakegu, eta ia guztietan gehiengotik ez dira nabaritzen oraindik. Izan ere, ezin dugu jakin saskian soilik gurina, ogia edota yogurrak daramazkiena dietan dagoen edota beharrezkoa dena erosteko diru nahikorik ez duen» (Glotz, 1992: 179).

Castel-en gerturapen teorikoa abiapuntutzat harturik, gizarte-zaugarritasuna osatzen duten aspektu nagusiak aztertzea izango da artikulu honen helburu nagusia. Horretarako, sakoneko elkarrizketa batzuk egin zaizkie —zortzi guztira— egoera hau pairatzen duten pertsona eta taldeei. Egindako elkarrizketak hiru tipologia ezberdinen arabera sailkatu dira. Lehenengo taldean gazteria bildu da, bertan ikerketa-bekak dituzten hiru pertsonen (1., 2. eta 3. elkarrizketak) eta oinarrizko errenta jasotzen duen beste baten kontaketa bildu direlarik (4. elkarrizketa). Bigarren taldean, oinarrizko errenta jasotzen dutenen elkarrizketak daude. Kasu honetan diru-laguntza jasotzen duen gazte bat (4. E), 40 urte inguru dituen (5. E) eta hirugarren adineko pertsona bat (6. E) elkarrizketatu dira. Ikusten denez, bizitzaren momentu ezberdinetan egonik ere, hirurek jasotzen dute oinarrizko errenta. Azken taldea pentsioak jasotzen dituzten pertsonena da, bertan 65 urte baino gehiago dituztenengan jarri delarik arreta nagusia. Bereziki alargunen egoera aztertuko dugu, gizarte-zaugarritasuna pairatzen duen talde esanguratsua baita. Kasu honetan, alargun bati egin zaio elkarrizketa (7. E), umezurtz-pentsioa jasotzen duen bati (8. E) eta ez-kontributiboa den pentsioaz gain oinarrizko errenta ere jasotzen duen bati (6. E). Pentsatzekoa denez, elkarrizketatu bakoitzari ezizen bat eman zaio. Dena den, nahiz eta izenak gezurrezkoak izan, bertan agertzen diren testigantzak guztiz benetazkoak dira.

2. Gazteria: etorkizun zehaztugabeko taldea

Gazterian zentratutako atal honetan hauei loturiko hiru ezaugarri orokor landuko dira. Lehenik eta behin, ikerketa-bekak aztertuko dira, gazteek izanik gehienetan horrelako *kontratuak* pairatzen dituztenak. Bigarrenik, gazteriaren eta etxebizitzaren arteko harreman gatazkatsua landuko da. Eta azkenik, eta aurreko biei lotuta, nerabetasunaren eta heldutasunaren artean dauden gazteek sufritzen duten diru-sarrerengabekotasunaren eta bizi-ezegonkortasunaren sakonduko da.

2.1. Formazio-bekak

Gai zehatz hau aztertu baino lehen, elkarrizketatu egin ditugun gazte guztiek formakuntza eta prestaketa handia dutela azpimarratu behar da. Denak unibertsi-tatean ikasitakoak dira eta guztiek ere espezializazio-ikastaro edota formakuntza osagarria jaso dute. Nahiz eta guztiek kualifikazio altua izan, lehen ez bezala horrek ez du kalitatezko eta ongi ordainduriko enplegurik bermatzen.

Orain 600 euroko hileroko beka bat jasotzen dut. Hemendik aurrera, diru-laguntza bat izango da tesi-doktorala egiteko ia jardunaldi osoz, soilik sei ordu lektiboko irakasle kontratua izan dezaket honetaz gain. Besterik ez du onartzen, hala nola materiala, dietak edota bidaiak (E 3: Aitziber).

Beka hilero 1.000 eurokoa da eta bere iraupena urtarriletik abendura arte bitartekoa. Lehen honen antzekoa zen beste beka bat izan nuen, kasu honetan sei hilabetekoa (E 1: Jon).

Aurrezki kutxa batean nengoen, gutxi gorabehera zortzietatik hirurak arte, atera beharreko lanaren arabera, hilero 500 euro jasotzen nituen... (E 2: Koldo).

Aipatutako istorio horiek garbi erakusten dute formakuntza ez dela lan-egonkor-tasunaren sinonimoa. Era horretan, gazteek askotan lan-kontratu ezberdinak izaten dituzte —izaten dituztenean—, gehienetan behin-behinekoak eta epe jakin baterako, nahiz eta enplegu horrek kualifikazio handia eskatu. Errealitate hau, gazteen ia erabateko monopolioa izanik, oso loturik dago azken urte hauetan bogan dagoen *mileurismo* kontzeptuarekin. Halaber, gero eta gazte gehiago dira kualifikazio handia dutenak eta, era berean, behin-behinekoak diren eta mila euro inguruan kokatzen diren enpleguak dituztenak. Are gehiago, zenbaitetan ere mila euro famatu horietatik nahiko urrun kokatzen diren lan-kontratuak topatzea ez da zaila izaten. Bekadunen kasuan, adibide bat aipatzearren, 2006. urtean 23.000 ikertzaile-bekadun zeudela estimatzen zen (*El País*, 2006/05/21), horiei arlo pribatu-tuan ari diren praktika- edota formakuntza-bekadunak gehitu beharko genizkie-larik. Pentsa daitekeenez, egindako elkarrizketetan paragrafo honetan aipatutako ezaugarri hauek behin eta berriz salatu egiten dira, bertan hainbat elementu azpimarratzen direlarik: lan-eskubideen falta beka-kontratu hauetan, beken eskasia diru aldetik edota ikerkuntza enplegutzat ez jotzea, horrek dakarren eskubideen ukapena aintzat hartuz.

2.2. Gazteak eta etxebizitza

Gazte gehienentzat etxebizitza arazo larrienetakoa dela esatea ez da berria eta elkarrizketetan zehar errealitate hori era argian islatzen da. Horrela izanik, gaz-teen artean ohikoak izaten diren bizitzeko aukera posible bakarrak agertzen zaizkigu: 1-Gurasoen etxean bizitzea, 2-Etxebizitza partekatzea, edota 3-Bikotea-rekin bizitzea. Laugarren aukera bat, bakarrik bizitzearena, printzipioz —printzipio *matematiko-hipotekarioa* zehazki— ezinezkoa suertatzen da, familiaren laguntza oso handia ez bada behintzat.

Independizatu egin diren elkarrizketatuen artean etxebizitzak gabezia eta arazo franko izaten ditu, berogailurik edo igogailurik ez izatea, hezetasunak, etab. Lehen aipatutako diru-sarreraren eskasiak zein behin-behinekotasunak erabat oztopatzen dute etxe berri bat erostearen aukera edo gutxienez era egokian dagoen batean

bizitza. Datu batzuek ezerk baino hobeto irudika dezakete egoera hori: Espainiako Gazte Kontseiluaren arabera, gazte batek bere diru-sarreraren % 85,9 etxebizitza ordaintzeko erabili behar du eta gazteez osaturiko etxe batek % 53,9. Gure gertuko datuei erreparatuz, Bizkaia da estatu osoan portzentaje altuenak erakusten dituen; horrela, gazte batek bere diru-sarreraren % 111,6 erabili beharko luke eta % 68,7 hurrenez hurren. Gipuzkoa ere goiko probintzien artean kokatzen da, laugarrena hain zuzen ere, Bizkaia, Bartzelona eta Balearren atzetik, % 106,6 eta % 65,6 batekin (CJE, 2009: 14). Ikusten denez, datuak argigarri bezain adierazgarriak dira.

Obra behar duen ehun urteko etxea da (teilatua, igogailua, fatxada, portala...), ez du ez trasterorik ez garajerik eta leihoak oso zaharrak dira (E 3: Aitziber).

Azkeneko 8-9 urteetan alokatutako hainbat pisutan bizi izan naiz beste ikasleekin, hamar bat baino gehiago. Gehienak alokairu garestikoak ziren —250-300 euro pertsona bakoitzeko— edota bestela gabezi handikoak izaten ziren: berogailurik ez, etxebizitza oso zaharrak eta baldintza kaskarretan, etab. (E 1: Jon).

2.3. Baliabideen gabezia eta bizitzaren behin-behinekotasuna

Aurreko bi ataletan ikusi izan den bezala, bai lanaren behin-behinekotasunak bai etxebizitzaren gaiak gazteen zaurgarritasuna bultzatzen dute hein handi batean. Horrek guztiak argi erakusten du gizarte-zaurgarritasuna gero eta gazte gehiagorengana ailegatzen dela eta gero eta eragin handiagoa duela lehen errealitate honetatik at gelditzen ziren klase ertainetan. Hona hemen adibide bat baino ez: gazteen ia erdiak, % 48,9k zehazki, behin-behineko kontratuak ditu Estatu mailan (CJE, 2008). Erkidegoari dagokionez, emaitzak antzekoak dira eta 25 urte azpiko gazteen artean kontratu mota hori % 64koa da (Trevilla, 2006).

Horrelako testuinguru batean sortzen diren aukerak dira gizarte-zerbitzuetara jotzea edota, eta ohikoagoa dena, senideen laguntza jasotzea. Azken hori izaten da gehienetan gazte askok nolabaiteko bizitza duin bat aurrera eramateko duten aukera bakarra. Era horretan, familiaren bidez aisialdian, arropetan edota janarrietan suerta daitezkeen gabeziei aurre egiten diete gazteek, baina pairatzen duten mendekotasun ekonomikoa erabatekoa da eta lehen salbuespena zena gero eta sarriago agertzen da. Injuveren datuen arabera, gazteen % 20k beste pertsona batzuen laguntza ekonomikoa behar du bizi ahal izateko (*El País*, 2006/10/22); gehienetan laguntza hori senideek edota gertuko pertsonak eskainitakoa izaten da, askotan emantzipatu eta gero ere jarraitzen duena.

Non erosten duzu arropa, zergatik (elkarrizketatzailearen galdera)? Herrian bertan, horrela nire ama etortzen da, izan ere berak ordaindu egiten dit arropa ia guztia (E 3: Aitziber).

Egoera honek automugaketa anitz dakar bere baitan, hala nola janari, aisialdi edota arropa arloetan. Are gehiago, zenbaitetan hain arrunta eta beharrezkoa den lagunekin gelditzea ere zaila suertatzen da gazte askorentzat horrelako baldintzengatik.

Astero lagunekin afaltzera joatea bezalako luxuak ezinezkoak dira niretzat. Era berean hilabeteak daramatzat arroparik erosi gabe (E 1: Jon).

Erosteke ahalmen handiagoa izango banu, polikiroldegian apuntatuta egongo nintzen, bidaiatu egingo nuke, poteatzera aterako nintzen, erosketak egitera... (E 3: Aitziber).

Aisialdian zentratuz, gazteentzat oso esanguratsua den ospakizun bati buruz hitz egingo dugu hurrengo lerroetan, ezkontzen inguruan alegia. Arazo ekonomikoak dituen gazte bat ezkontza batera gonbidatzen dutenean aukerak dira: baietz esatea eta hainbat hilabetetan —edo urte osoan— arazo ikaragarriak izatea hileko kontuak osatzeko; edota gonbiteari ezetz esatea, sinesgarria izan behar den aitzakia bilatuz edota zuzenean onartuz bere egoera ekonomikoa ez dela ona. Kasu guztietan irtenbidea ez da batere ona eta gehienetan gertukoaren aurrean lotsa pasatzea ezinbesteko baldintza izaten da. Bitxia eman dezakeen arren, elkarrizketatu bik hitz bera erabiltzen dute ezkontzen ospakizuna definitzeko: *odol-ateratzea*.

Gero eta gehiago nabaritzen dudana ezkontzena da, *putada* ikaragarria dira. Neure bizitzan ez naiz inoiz ezkontzetara joan eta orain hasi naiz, ez askotara, baina batera gonbidatzen zaituzte eta beste batera eta ezin da, hau odol-ateratze bat da (E 4: Juan).

Ezkontzak? Asmatu ez balira hobe... Baina tira, nire lagunak azkenaldi honetan ezkontzen ari dira eta odol-ateratze bat da, baina tira... (E 2: Koldo).

Azkeneko ezkontza orain dela urte eta erdi izan zen, dena den ez zuen gastu handiegirik suposatu. Bazkaria ezkontzen zirenek ordaindu zuten, oparirik ez nien egin, arropa oparitu zidaten. Orain dela bi urte lagun baten ezkontza izan zen eta dirurik ez nuen ez nintzen joan (E 3: Aitziber).

Ikus daitekeen moduan, horrelako egoera batean etorkizuna eraikitzeko aukerak nahiko urriak dira, eta hortaz, etorkizun ezegonkorra, aurretik ezagutu ezin dena, eta askotan urduritasuna sorrarazten ditu.

Etorkizuna? Zehaztugabea (E 3: Aitziber).

Etorkizunean ez dut asko pentsatzen. Gure belaunaldikoek ez diote asko erreparatzen etorkizunari; izan ere, begiratzen baduzu badakizu zer ikusiko duzun, iluntasuna... (E 2: Koldo).

Horrela, bada, orainaldiak etorkizunari eusteko aukera gutxi ematen ditu, eta testuinguru horretan ez dira arraroak izaten egunetik egunera bizitzeko agertzen zaizkigun estrategiak, nolabaiteko *betiereko carpe diem* batean bizitzeko eta bi aukera nagusi izanik: bata, biziraupena, ezbeharrei eta bizi den errealitateari aurre eginez eta aurrera egiten saiatuz; eta bestea, ihesaldia, irtenbideak alde batera utziz eta *Historias del Kronen* film eta eleberrian ikus daitekeen nolabaiteko alienazioari jarraituz.

3. Gutxieneko diru-sarrera (Oinarrizko Errenta) jasotzen duten pertsonak

3.1. Zaurgarritasun-egoera

Oinarrizko errenta jasotzen duten pertsonen inguruan aipa daitekeen lehenengo ezaugarria pairatzen duten gizarte behin-behinekotasun handia da, eguneroko edozein jardueratan islatzen dena gehienetan. Dena den, ezaugarri hori talde

hona da, baina gizarte-zaugarritasuna pairatzen duten beste kolektiboetan ere era nabarian agertzen da.

Etxebizitzaren kasuan, adibidez, ematen diren gabeziak nahiko handiak izaten dira, etxea jabetzan (E 5) zein alokairuan (E 4 eta E 6) edukita. Kasu guztietan nahiko zaharrak diren etxeak dira eta berogailu edo telefono-sarerik gabekoak dira. Azken elementu horri lotuta, behin baino gehiagotan sakeleko telefonoaren alde egiten da, horren gastu finkoak arrunt batenak baino baxuagoak baitira. Hezetasunaren arazoa ere behin baino gehiagotan agertzen da nahiko era gordinean: elkarrizketatu baten etxean adin txikiko hiru ume bizi dira eta beste batean 74 urteko gizon bat eta haren hiru urteko iloba.

Berogailurik ba al duzue (galdera)? Ez, estufa bat. Telefonoa? Banuen, baina moztu egin zen (...) Hezetasuna, asko, fatxadaren alde hau oso gaizki dago, bizilagunekin bilera bat egin behar dugu hau konpontzeko, hezetasuna ikaragarria daukat, bai nik zein nire bizilagunek (E 5: José).

Hezetasuna, arazo bat dugu hezetasunarekin. Goiko emakumeari garbigailua hautsi zitzaion eta eguerdian gela guzti hau ureztatu egin zuen. Hortik aurrera ez dugu argirik gela honetan, konpontzera etorri ziren baina ez dute erabat konpondu (E 6: Emilio).

Askotan Oinarrizko Errenta nahikoa ez denez izaten, janaria edota arropa oinarrizko beharrianak asetzeko esaterako, Cáritas-era jo behar dute pertsona hauek, zeinak, historikoki muturreko pobrezian eta karitatean zentratutako erakundea den arren, gizarte-zaugarritasunean kokatzen diren pertsonekin gero eta gehiago lan egiten baitu, alegia. Azken garai hauetan krisia dela-eta, oso nabaria izaten ari da dinamika hau eta erakunde honen arduradunek behin baino gehiagotan azpimarratu dute azken hilabete hauetan haiengana jotzen duten erabiltzaileen profila eraldatzen ari dela eta, teoriar behintzat, integratuta dauden gero eta lagun gehiagok jotzen dutela Cáritas-era. Era berean, horrek garbi erakusten ditu Ongizate Estatuaren azkeneko gizarte-politikek —gutxieneko diru-sarrerak— dituzten gabeziak eta mugak. Datu batzuk aipatzearen, Cáritas-era jotzen duten erabiltzaileen % 52 udalek deribatu egin dituzte (*El País*, 2009/7/5).

Emiliok ez zuen laguntza eskatzera joan nahi (bere emazteak hitz egiten du), asko kostatu zitzaion ez zuelako nahi. Nik ikusten nuen bakarrik arropa eta arropa jaten genuela. Niri ez dit penarik ematen, hegoamerikarrok ez dugu hainbesteko penarik. Berak esaten zuen “gingo dugun azkenekoa izango da hori”, baina nik esaten nion “nik zer egingo dut, nik ezin dut horrela jarraitu”. Eta egun batean umearekin, joatea (Cáritas-era) erabaki nuen (negarrez hasten da) (E 6: Emilio).

Oinarrizkoak diren janaria, arropa edota aisialdia bezalako gaiak erronka itzela izaten dira pertsona hauentzat, gizarte-bazterkeria edota -zaugarritasuna aztertzen denean behin eta berriro agertzen den konstantea izanik. Pentsa daitekeenez, testuinguru honetan aurrezteak ezinezkoa izaten da.

Neure buruari mugak jartzen dizkiot, noski, etxetik joan nintzenetik. Adibidez, nik janarietan asko sumatzen dut. Elikadura egokia eta kalitatezkoa eramaten saiatzen naiz, baina gehienetan hobe eramatea gustatuko litzaizuke. Fruta-dendara joaten zara eta labela duten tomateak ikusten dituzu, lau edo bost euro balio dute eta erosiko nituzke besteek zaporerik ez dutelako, baina zoritxarrez bi euroko tomateak erosi behar ditut (E 4: Juan).

Gu ezin gara taberna batean sartu eta kroketa batzuk jan, ezin dugu ardo bat hartu, ezin dugu ezer hartu. Kalera zeozer hartzera ez gara joaten, ez gara zinera joaten, ez gara joaten. Sei edo hamar euro gastatzen baditugu gero ezin dugu ezer egin. Ezin dugu ezer egin, ezin gara inora joan. Bi urte eta erdi daramatzagu galtzerdirik edota zapirik erosi gabe (E 6: Emilio).

Maila ezberdinetan azaltzen diren gabezia horiek eta laguntzekiko agertzen den mendekotasunak, gehienetan, ondorio psikologiko ezkorrak izaten dituzte pertsona hauengan, autoestima baxua edota adore falta ohikoak izanik haien artean. Erantzuna, sarritan, egoera hau etxean ezkutatzea edota gaiaren inguruan asko hitz egin nahi ez izatea izaten dira. Era berean, ez da harritzekoa elkarrizketetan behin baino gehiagotan, apalkuntza edota sufrimendu hitzak agertzea. Batean, adibidez, limosna hitza bost aldiz agertzen da.

Batzuetan jarrera defensiboa hartzen duzu eta beste zenbaitetan nire egoera azaltzen ekiditen saiatu naiz (E 4: Juan).

Eta orain limosna jasotzera behartuta nago, ez dago eskubiderik (E 6: Emilio).

3.2. Askotarikoa eta konplexua den errealitatea

Oinarrizko errenta jasotzen duten pertsonen inguruko azterketak egiten direnean, gero eta gehiago hartzen da kontuan horien barruan topa daitekeen aniztasuna. Egindako elkarrizketetan bertan ikus daiteke elementu hori. Horrela, Oinarrizko Errenta jasotzen dutenen adina 29, 73 eta 34 urtekoa da. Hortaz, behar ekonomikoa, adin horien bidez antzeman daitekeenez, gaztaroan zein zahartzaroan ageri da. Azken hori datu esanguratsua da, are gehiago kontuan hartzen badugu gutxieneko diru-sarrerara azken babes modura jaio zela enplegurik gabe zeuden eta prestazio bat jasotzeko eskubidea ez zutenentzat. Izan ere, nahiz eta hori izan hasierako helburua, errealitateak argi utzi du talde horretaz gain beste batzuk ere badirela gabezia ekonomikoak pairatzen dituztenak, eta, beraz, Oinarrizko Errenta jasotzen dutenen artean hirugarren adina talde esanguratsua da.

Era berean, aipatutako pluraltasuna ez da soilik adinean agertzen. Persona hauek lan-merkatuarekin duten harremana eta haien laneratze-aukerak ere askotarikoak izaten dira. Horrela izanik, honen arabera Oinarrizko Errenta jasotzen duten pertsonen artean zenbait talde azpimarra daitezke. Elkarrizketetan ere, profil ezberdin horiek erraz ikusten dira. Juan (E 4) formakuntza duen pertsona gaztea da, haren lan-integrazioa ia erabatekoa da eta egun enplegurako pizgarriak jasotzen ditu eta Oinarrizko Errenta berehala utziko duela ematen du. José (E 5), aldiz, ijitoa da eta mekanika-alorrean egindako formakuntza-ikastaroa alde batera utzita ez du ia batere harremanik izan lan-merkatuarekin. Era berean, urteak daramatza Oinarrizko Errenta jasotzen. Gizarte-bazterkeria larriko testuinguru batetik dator, orain dela zazpi urte arte txabola batean bizi zen eta ez daki idazten eta irakurtzen. Hirugarrenik, Emilio (E 6), jubilatu arte enplegu eta soldata duinak izan dituen pertsona da. Kotizatu behar den gutxienekoa ez zuenez kotizatu pentsio ez-kontributibo bat jasotzen du eta kopuru baxukoa izanik, horretaz gain Oinarrizko Errenta jasotzen du osagarri moduan. Azken pertsona horren kasuan, haren beharra errentaren bermaketa da soilik. Beste bien kasuan, horretaz gain, lan-merkatuatzeko neurrietan ere arreta jarri beharko da, nahiz eta haien beharrak ere oso ezberdinak izan. Ikusten denez, Oinarrizko Errenta jasotzen dutenen

beharrak eta esku-hartzea oso ezberdinak dira profilaren arabera, eta zerbitzu eta aniztasun horrek baliabide anitz martxan jartzea eskatzen du halaberrez.

4. Hirugarren adina

4.1. Hirugarren adinerako igarobidea: arriskutsua den trantsizioa

Hirugarren adineko pertsonak, gizartearen beste hainbat sektoreekin batera, gizarte-bazterkeria zein -zaurgarritasunean erortzeko arrisku gehien dutenak dira. Eta erori hitza erabiltzen dugu, askotan bizitza osoan integratuta egon diren adinekoak izaten baitira horrelako egoera pairatzen dutenak. Kasu honetan eragin nabarmena izaten du heldutasunetik erretirora egiten den igaroaldiak, askorentzat zaila eta oso malkartsua izaten da trantsizio-fase hau, bizitzan aldaketa handia suposatzen duelako. Zer esanik ez bikoteko kide bat hiltzen denean.

Nire senarra bizi zenean oso ondo bizi nintzen, denetarik nuen. (...) Oso ondo bizi ginen. Berak ondo irabazten zuen, gertatzen dena zera da ez genuela aurreztu, bazkaltzera, afaltzera, oporretara asko joaten baikin. Ni zoragarri bizi nintzen... (E 7: Felisa).

Adin-talde honetan ere hainbat egoera topa ditzakegu. Alde batetik, kotizazio nahikorik ez dutenak eta, beraz, kopuru baxuko pentsio ez-kontributiboa jasotzen dutenak, hauen kasua Emilio (E 6) —jada komentatu egin dena azaletik bada ere— eta Mercedesena (E 8) da; Mercedesek 73 urte ditu eta bere bizitzan zehar aldizkako enpleguak izan dituenek, soilik hamaika urtez kotizatu egin du, gaur egun umezurtz-pentsio bat kobratzen du.

Ni hamabost urte baino gehiago egon nintzen, baina engainatu egin ninduten, zeozer egin zidaten, ez dakit zer. Nik agiri batzuk bidali nituen zenbat urte kotizatuta nituen jakiteko eta esan zidatena baino gutxiago nituela ikusi nuen. Gainera orain dela urteak hamar urterekin nahikoa zela pentsioa jasotzeko esan zidaten, baina dirudienek ez da horrela (E 6: Emilio).

Nik lan egin dut, gertatzen dena da aldizkako lanak izan direla eta askotan Gizarte Segurantzaren afiliatuta egon gabe. (...) Ez dut kotizatu, kotizatu nuenean hamaika urtez egin nuen, gero hamabost urteko muga jarri zuten eta hor gelditu nintzen... Okindegi batean lan egin nuen hamaika urtez, baina itxi egin zen eta esan nuen hamaika urte ditudanez ondo, baina gero hamabost jarri zituzten. Ondorioa... ez dut pentsiorik... (E 8: Mercedes).

Bestalde, alargunen kasua dugu —emakume alargunen kasua hobe esanda—; gehienetan ez dute Gizarte Segurantzaren kotizatu eta haien senarren kotizazioa-rengatik jasotzen duten alargun-pentsioaren menpe egoten dira ia kasu guztietan. Horrela izanik, estatu mailan arazo eta gabezia ekonomiko gehien pairatzen dutenen artean alargunen taldea azpimarratu behar da, ezbairik gabe.

Haien inguruko datu batzuk aipatzea interesgarria izan daiteke haien errealtatea zein den hobeto ezagutu ahal izateko. Estatu mailan 2,2 milioi pertsona inguru dira alargun-pentsio bat jasotzen dutenak (*El País*, 2006/5/31), emakumeak gehiengo nabaria izanik. Hirugarren adinaren eta pobreziaren arteko harremana irudikatzeko hona hemen datu batzuk: UGT sindikatuak Katalunian egindako ikerketa baten arabera, erkidego horretan pentsio bat jasotzen dutenen erdiak

pobreziaren mugaren azpitik daude (*El País*, 2006/2/23). Pentsa dezakegunez, erkidego horretako datuak beste batzuetara estrapola ditzakegu eta egoera hori pairatzen dutenen artean emakumeen portzentajea handia izango da. Zentzu horretan, ezin dugu ahaztu senarraren heriotza familia horren diru-sarrerren % 44ko murrizketara ailegatu daitekeela (*La Vanguardia*, 2006/1/27). Datu hauekin bukatzeko gaur egungo zenbait alargun-pentsio 500 eurotik behera kokatzen dira, Europa mailan baxuenetarikoa. Egoera hau pairatzen dutenen artean oso ohikoa izaten da hurrengo pasartean ikusiko duguna.

Senarra hiltzen denean zergatik ematen zaie alargunei haren pentsioaren erdia? Emaztea hiltzen bada, senarrei pentsio osoa gelditzen zaie, bera hiltzen bada erdia. Ez dago eskubiderik. Bazkari bat gutxiago, baina argia berdin-berdin ordaindu behar duzu, ura, telefonoa, dena berdin ordaindu behar duzu. Hau oso gaizki ikusten dut (E 7: Felisa).

4.2. Egiturazko gabeziak: etxebizitza eta oinarrizko beharrianak

Lehen aipatu den bezala hirugarren adineko pertsona gehienak egoera normalizatu batetik datoz. Horri gehitzen badiogu familia bat eratu zuten garaian etxebizitzaren egoera ez zela gaur egungoa, gehienek etxebizitza jabetzan dutela oharitzen gara.

Nire etxeak 79 metro karratu ditu. Jabetzan daukat, nirea da, nire senarrak eta biok erosi genuen. Lehen beste batean bizi ginen. Gero errepide ondoko etxe horiek egin zituztenean hara joan ginen, gurea da, nire senarrak ordaindu egin zuen (E 7: Felisa).

Dena den, agerikoa da etxebizitzan gabeziak eta arazoak dituztela, gehienbat etxe zaharrak izaten direlako eta berogailurik izaten ez dutelako edota etxe barruko hainbat zerbitzu era desegokian daudelako. Egoera horri adina gehitzen badiogu, argi gelditzen da pertsona hauen bizi-baldintzak gutxienez nahiko kaskarrak izaten direla: Felisak 76 urte ditu eta Mercedesek 73.

Berogarilurik ez dut eta noski ezin dut jarri, uste dut 600 euro balio duela eta nondik ateratzen dut nik diru hori, nondik... (E 7: Felisa).

Baina aipatutako gabeziok ez dira etxebizitzara mugatzen, bizirauteko oinarrizko beharrianetan ere arazo dezente pairatzen dituzte. Beste kasuetan bezala, arazo larriekin, arroparekin, aisialdiarekin eta gizarte-harremanetan sortzen dira.

Zenbaitetan faltan bota al duzue oporretara ez joatea edota lagunekin jatetxe batera joan ezin izatea (galdera)? Bada bai, gauza horiek faltan botatzen dituzu eta joño, zure aiton-amonak bezala gaudela esaten duzu. Aspirazio handiegirik ez dugu izan gure bizitzan, baina nola ez dituzu faltan botako gauza horiek... Jendea ikusten duzu, baina zuk bizitza hori ezin duzu eraman zure egoera ekonomikoarengatik. Gure egoera ekonomikoa ez da batere ona... (E 8: Mercedes).

4.3. Mendekotasun ekonomikoa arau bezala

Aurreko guztia ikusi eta gero, nabaria da aurrezki hitza ia guztiz ezezaguna eta ezinezkoa izaten dela pertsona hauentzat. Ezohiko gastu bati aurre egiteko aurrezte ezinezkoa zaie eta horrelako behar bat sortzen denean, egoera are eta

jasanezinago bihurtzen da. Horrelakoetan, ezohiko paga izaten da aurrera jarraitzeko aukera bakarra, eta, pentsa daitekeen moduan, hirugarren adineko pertsona hauen kasuan diru hori ez da erabiltzen opor batzuk edota kotxe berria erosteko, baizik eta bidean sortu diren *zuloak* estali ahal izateko edota oinarrizko beharrianei aurre egiteko, ohikoak edo ezohikoak izanik hauek.

Horretaz gain, pertsona hauek beren senideengandik jasotzen duten laguntza ekonomikoa oso azpimarragarria da ere. Bat-etortze bitxia gertatzen da gazteen eta hirugarren adinekoen artean: bietan mendekotasun ekonomikoa nabaria da. Lehenengo kasuan, gurasoekiko mendekotasuna gailletzen den bitartean, hirugarren adinekoen kasuan mendekotasuna seme-alabekikoa da. Beraz, familia-elkartasuna aurrekoan goranzkoa da eta bigarreanean beheranzkoa, kontrako noranzkoan.

Nire alabek erosten didate arropa, nire urtebetetzean eta gabonetan. Beraiek dira arropa erosten didatena, horrela da... Hozkailua laister puskatuko zait, oso gaizki dago eta seme-alabei laguntza eskatu beharko diet, gaur egun hozkailurik gabe ezin baikara bizi. Bakarrik bizi naizenez eta asko jaten ez dudanez gai honetan ez dut laguntzarik behar. Etxeko leihoak ere jarri dizkidate, oso gaizki baitzeuden. Gauza hauetan laguntza eskatu behar dut, bestela nondik aterako dut nik... (E 7: Felisa).

Familiarekiko mendekotasun ekonomikoa da ikusi dugunez egoera honi aurre egiteko irtenbiderik erabiliena eta eragingarriena. Gurasoak laguntzeko prest edo gai diren seme-alabarik ez badago, familiarik gabeko hirugarren adinekoentzat egoera asko zailtzen da eta hauen kasuan zenbaitetan gizarte-larrialditzat jo ditzakegun errealitateak ageri dira.

5. Ondorioak: zaugarritasunaren ezaugarri komunak eta herritartasunaren krisia

Azken atal honetan, eta ondorio eta laburpen gisa, artikulo hau egiteko landu diren elkarrizketak eta hiru taldeek islatzen dituzten ezaugarri komun nagusiak deskribatuko ditugu. Lehenik eta behin, azpimarragarria da gizarte-zaugarritasuna gugandik pentsatzen duguna baino askoz gertuago kokatzen dela. Gure hiri, auzo, kale edota blokean bertan hilabeteko azken egunetara ailegatzeko arazoak izaten dituzten pertsonak daude. Gehienetan, errealitate ikusezinak izaten dira, baina horiek ez du esan nahi, inondik inora, ondorioak nabariezina direnik. Auzokide edota bizilagunentzat pertsona *arruntak* eta integratuak dira, kalean arazoak islatzen ez dituztenak, baina haien etxeko atea ixten denean, pertsona horiek bi aldiz pentsatu behar dute egun horretan ea berogailua piztu dezaketen ala ez, edo aste horretan haragia edo arraina jaterik izango duten.

Gizarte-zaugarritasunaren beste ezaugarri bat, eta jada aipatu egin dena ere, bertan kokatzen diren pertsonen profil askotarikoa da, komunean duten ezaugarria gizarte-zaugarritasuna eta behin-behinekotasun bitalak dira. Errealitate ezberdengatik: enpleguaren behin-behinekotasunagatik, beken ezaugarriengatik edota prestazio ekonomiko eskasengatik —Oinarrizko Errenta, pentsio ez-kontributiboak, alargun-pentsioak—. Pertsona hauek gabezia nabarmenak erakusten dituzte hainbat oinarrizko beharriazetan eta zailtasun handiak izaten dituzte gutxieneko

bizitza duin bat aurrera eramateko. Horren guztiaren ondorioz bizitza hauskorrak eta zihurtasun gutxiakoak bizi behar dituzte.

Era berean, gizarte-zaugarritasuna definitzen duten hainbat ezaugarri komun agertzen dira elkarrizketetan zehar. Aurreztea ezinezkoa izatea da horietako bat. Horrela izanik, gizarte-zaugarritasuna pairatzen duen pertsona batentzat etorkizun luzerik ez da existitzen eta haren etorkizun bakarra hil-bukaerara ailegatzea izaten da. Egunean bizitzea normaltasun bilakatzen da. Zentzu horretan, aipagarria da adin-tartean hain urruti dauden gazte eta hirugarren adinekoentzat etorkizuna segurtasunik gabeko epea suertatzen dela. Are gehiago, ondorengo bi pasarteetan adin-tartea zehaztu izan ez balitz, zaila izango zen jakitea zein dagokion zeini.

Ez dugu ezer bermaturik, horrela izanik etorkizuna galdera-ikur handi bat da (E 1: Jon. Gaztea).

Bai, bai, zihurgabetasuna da nagusi. Dena den, moldatuko naizela esan beharko dut (E 8: Mercedes. Hirugarren adina).

Ezaugarri komunekin jarraituz, oinarrizko beharrianak gehienetan ase egiten dira, baina nahiko era eskasean. Etxebizitza izaten da, zentzu honetan, arazo gehien ematen duen oinarrizko beharria. Zenbaitetan etxebizitza izatea ezinezkoa suertatzen da ia —gazteak—. Besteetan, etxebizitzan pairatzen diren gabeziak oso nabariak izaten dira, adibidez hezetasunei dagokienez —Oinarrizko Errenta— edota fakturak ordaintzeko momentuan —hirugarren adina—. Elikadura egokia, arropa erosteko edota gizarte-harremanak izateko hain garrantzitsua den aisialdian ere arazo nabarmenak ikus daitezke pertsona hauen artean. Halaber, bi aldiz begiratu behar dira prezioak barazkiak, arraina edota haragia erosteko eta gabonak edota urtebetetzera arte itxaron behar da arropa erosteko.

Laburbilduz, gizarte-zaugarritasunaren eta behin-behinekotasunaren ondorioz gero eta jende gehiago da herritartasun osoaz disfrutatzen ez duena. Herritartasun-eskubide formalak badituzte, baina errealitatean ez dira eskubide horien jabe eta bigarren mailako herritarrak izaten dira askotan, nolabait ere *azpi-herritartasun* baten jabe izanik. Azken tendentzia horrek gero eta indar handiagoa du gure gizarte garatuetan. Gero eta gehiago dira integrazioaren eta gizarte-bazterkeriaren artean kokatzen diren pertsona eta taldeak. Ez dira baztertuak, orain arte ulertu dugun bezala, baina ezta integratu peto-petoak ere. Horrela, *zaugarrituen* kolektiboa osatzen dute, lehen gizartearen bi aldeek osatzen zuten errealitatearen artean kokatzen direnak alegia. Ez dute goserik pasatzen, baina ez dute nahi dutena jaten. Inor ez da gosez hilko, baina etxean berogailurik ez dute edo ez dute pizten. Hauxe da gero eta nabariago agertzen zaigun errealitatea gure gizarteetan, herritartasuna kideak galtzen ari da behetik, gehienbat lan-merkatuak zein Ongizate Estatuak erakusten dituen gabeziengatik.

Gizarte-zaugarritasuna pairatzen dutenen erantzuna eta ikuspuntuak ere ezberdinak izaten dira. Dena den, orokorra da frustrazio, umiliazio edota autoes-timu baxuko sentimenduak. Horretaz gain, nabaria da ere hainbatek badutela gizarte era ez-justuan tratatzen ari delako sentsazioa. Hortaz, eta Margalit-en ekarpenei jarraiki, gizarte *dezentetik* oso urruti egongo ginatke, gizarte hori bere herritarrak umiliatzen ez dituen bezala ulerturik (Margalit, 1997). Zentzu horretan,

eta artikularekin bukatzeko, gogorra bezain esanguratsua den esaldi bat agertzen zaigu elkarrizketa batean: «Nirea historiara pasa da, ni jada historiatik at nago». Esaldi horrek, beste edozeinek baino hobeto irudikatzen ditu azken paragrafoan aipatutako sentipenak eta gure gizarte garatuetan gizarte-zaurgarritasuna pairatzen dutenen egoeraren ondorioak nolakoak diren.

Bibliografia

- Arriba, A. (2002): *El concepto de exclusión en política social*, Ikerketa Zientifikoetarako Batzorde Gorena (CSIC), <<http://www.iesam.csic.es/doctrab2/dt-0201.pdf>>.
- Castel, R. (1990): *Les situation-limite du processus de marginalisation: de la vulnérabilité a la désaffiliation* (EC Conference on Poverty. Marginalisation and Social Exclusion in the Europe of the 90's aurkeztutako ponentzia, Sassari, Italia).
- , (1992): “La inserción y los nuevos retos de las intervenciones sociales”, in F. Alvarez-Uría, (arg.), *Marginación e inserción*, Endimión, Madril.
- , (1997): *Las metamorfosis de la cuestión social*, Paidós, Buenos Aires.
- , (2004): “Encuadre de la exclusión”, S. Karsz, (koord.), *La exclusión, bordeando sus fronteras*, Gedisa, Bartzelona.
- CJE (2008): *Observatorio joven de empleo en España. 2º Trimestre 2008* (prentsa-oharra), Consejo de la Juventud de España, <<http://www.cje.org/C4/Notas%20de%20prensa/Document%20Library/notas2009/objovem6.pdf>>.
- , (2009): *Observatorio joven de la vivienda. Boletín cuarto trimestre 2008*, Consejo de la Juventud de España, <[http://www.cje.org/C15/C2/OBJOVI%2025%20\(Cuarto%20trimestre%20/Document%20Library/OBJOVI%2025.pdf](http://www.cje.org/C15/C2/OBJOVI%2025%20(Cuarto%20trimestre%20/Document%20Library/OBJOVI%2025.pdf)>-
- García-Serrano, C. eta Malo, M.A. (1996): “El comportamiento económico de los excluidos: un modelo para la política social”, EEEE, *Pobreza, necesidad y discriminación*, Argenteria Fundazioa, Madril.
- Glutz, P. (1992): *La izquierda tras el triunfo de Occidente*, Alfons el Magnànim, Valentzia.
- Margalit, A. (1997): *La sociedad decente*, Paidós, Bartzelona.
- Trevilla, C. (2006): “Gobernar para los satisfechos”, *El País*, abenduaren 7a (Euskadiko edizioa).
- EEEE (2003): *Análisis económico de la exclusión social*, Espainiako Gizarte eta Ekonomia Batzordea, Madril.

